

## Paisaia erromantikotik haratago

KOLDO MITXELENA KULTURUNEAK **JAVIER VALVERDE** PINTOREAREN **ATZERA BEGIRAKO** ERAKUSKETA INAUGURATUKO DU GAUR

JOSEBA IMAZ  
DONOSTIA

**J**AVIER Valverderen (Donostia, 1956) margolanei askotan jarri izan zaie erromantikoko etiketa. Hala esan zuen behintzat Frantxis Lopez de Landatxek, atzo, pintore donostiarraren atzera begirako erakusketaren aurkezpenean. Koldo Mitxelena Kulturuneko (KMK) zuzendariak berak, baina, iritzi zabaldu horri aurre egin zion: "Javierrek ez du edertasuna bakarrik eskaintzen, baita naturaren inguruko hausnarketa bat ere. Gizakiaren eraginaz gogoeta egiten du".

Paisaia erromantikotik haratago doazen 25 koadro erakutsiko baititu gaurtik aurrera Valverdek Donostian, KMKko Ganbaran. Azken 30 urteotan egindako lanak katalogatu eta horien artean esanguratsuenak aukeratu dituzte, artistaren "eboluzioa" eta "koherentzia" azaldu ahal izateko, Isabel Sagües komisarioak esan zuenez.

Valverdek, Lopez de Landatxek eta Sagüesek elkarrekin aurkeztu zuten atzo pintore donostiarraren inguruko erakusketa, inaugurazio ofiziala gaur 19.30ean egingo bada ere.



Ezkerrean, erakusketako margolanik handienetako bat, 1990eko hamarkadakoa. ARGAZKIA: RUBEN PLAZA

Aurkezpenerako muntaia txiki bat prestatu omen du margolari donostiarrak; KMKko bozgorailuetatik ateratzen ziren kukurruko hotsak entzunda, baserriar ikutua izango du ziur asko asmakuntza horrek.

Mendian bizi baita Javier Valverde azken urteotan. Oiartzunen eza-

**"Betidanik hiritik kanpo bizi izan naiz. Agian hori da paisaiak margotzearen zergatia"**

JAVIER VALVERDE  
Margolaria

rrri zuen bizi lekua, Ayalde familia etxean hasieran, Maimontz base-rrian, gero, eta Aiako Harriaren azpiko etxe-kantegi batean, gaur egun. "Beti hiritik kanpo bizi izan naiz eta mendia atsegin dut. Han ibiltzen naiz. Agian hori izan daiteke paisaiak margotzearen zerga-

tia, baina ez dut horretan sekula pentsatu", jakinarazi zuen autoreak.

Naturarekiko obsesio horren arrazoirik ez badu ere, *Javier Valverde 1981-2011* erakusketako margolanetan paisaiak dira erabateko nagusi. Berde eta urdin koloredun eszena natural harrigarriak ikus daitezke hasierako lanetan. Okreak, laranjak, arrosak, urdinak, moreak eta gorrixkak, berriz, azken urteotako koadroetan.

Denboran zehar emandako aldaketa hori "pixkanakakoa" izan da, "koherentea", Sagüesen arabera, eta hori erakusketan "nabaritu" egiten da. Komisarioak, hain justu, kronologikoki paratu nahi izan ditu piezak, publikoak ibilbide artistiko hortaz jabetu dadin.

ZUHAIKAZ, HODIAK ETA MENDIAK  
**"Ikutu surrealista"**

Gai nagusia paisaia bada ere, Valverderen unibertsoa osatzen duten beste hainbat elementu aipatu zituen komisarioak. Horien artean daude, esaterako, zuhaitzak, hodi organikoak, mendi tontorrak -Aiako Harria, bereziki-, "gizakiaren presentziarik eza" eta "plano ezberdinen" arteko jolasa. Horiek guztiak "ikutu surrealista" batekin

**"17 urterekin jabetu nintzen zerbaitetara gerturatu nintekeela pinturaren bidez"**

Arte giroan hezi zen Javier Valverde, Antonio aitak pintura estudioa zuenez

DONOSTIA. Formakuntza artistikoari dagokionez autodidakta baldin bada ere, arte giroan hazi zen Javier Valverde. Antonio Valverde aita pintorearen Ayalde izeneko estudioan denboraldi luzeak pasatzen zituen familiak eta egonaldi haiek erabakiorrak izan ziren Javierren bizitzan, hainbat artista ezagunen bilgune izaten baitzen leku hura.

Rosa Valverde arreba eta pintorearen babesean hasi zen marrazten eta, atzoko aurkezpenean esan zuenez, gaztaroan sortu zitzaion margotzeko grina. "17 urterekin konturatu nintzen zerbaitetara gerturatu nintekeela pinturaren bidez", esan zuen. 1979. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxak antolatzen duten Artista Berrien lehiaketa irabazi zuen eta Vicente Ametztoy, Ramon Zuriarrain, Jose Luis Zumea eta Juan Luis Goenaga ezagutu zituen gaztaroan. >J.I.



Javier Valverde, atzo, Koldo Mitxelena Kulturuneko Ganbararen erdigunean, margolanaz inguratuta. ARGAZKIA: R. PLAZA